

2/2021 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
MARTXOAREN 9an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea

Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea

Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea

M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea

Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea

Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea

Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.

Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.

Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea

Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua

Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua

Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko

Mankomunitateko lehendakaria

Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria

Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea

Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea

Ezin etorria adierazi dute:

David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.

Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.

Yolanda González García and., Vianako alkatea.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeita bateko martxoaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
- 2.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3.- NUKFri atxikitze eskaerak.
- 4.- Elkarlanerako protokoloa Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberaren eta Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren artean.
- 5.- Kontratazio Publikorako Aholkularitza Batzordearen txostena Geserlocal SL NUKFren erakunde instrumentala izan daitekeen edo ez azaltzeko.
- 6.- Lehendakariaren informazioa.
- 7.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Otsailaren 9ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Jarraian, lehendakariak jakinarazi du hirugarren puntuan jasotzen den Nafarroako Kirol Jokoak Antolatzeke Batzordeko kide gisa eskatutako Udal Kirol Teknikariari dagokionean, Raquel Astudillo Madorrán San Adriango Udaleko Kirol Arloko teknikaria izendatu dutela, udal Kirol Teknikarien Elkarteak hala proposatuta.

Inork ez du oharrik egin; horrenbestez,

ERABAKI DA:

2021eko otsailaren 9an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektoriale buruzko informazioa.

Honako Batzorde eta Kontseiluen berri eman dute:

- **Despopulazioaren kontra borrokatzeko Batzordea**, (2021/02/12). Nafarroako Gobernuak esku artean dituzten proiektuen berri eman zuen: konektagarritasuna, ekintzaitza eta lehen sektorea; finean, lurralde- eta gizarte-kohesioaren ardatza. 2020an egindako jarduerak azaldu zituzten eta 2021erako aurreikusitakoak. Tokiko ekoizleen azoka nabarmendu zuten.
- **Nafarroako Adingabearen Kontseilua**, (2021/02/18).
- **Toki Araubideko Foru Batzordea**, (2021/02/18). Klima Aldaketari buruzko Foru Legearen aurreproiektuari aldeko txostena eman zitzaion baina toki entitateentzat eta herritarrentzat aurreikusitako helburuak betetzera zuzendutako laguntzak barne hartuko dituen xedapen gehigarri bat gehitzeko baldintzapean.
- **Hautzaroaren araudi berria jorrazteko lan-taldea**, (2021/02/18).
- **Emakumeen kontrako indarkerian arreta eta prebentzioa eraginkortasunez koordinatzeko jarraipen batzordea**, (2021/02/19). 2020an egindako jardueren eta 2021erako aurreikusitakoen berri eman zuten. Halaber, Nafarroako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoaren prestakuntzaren berri eman eta genero indarkeriaren alorreko tokiko koordinazio protokoloen prestakuntzari buruzko informazioa eman zuten.
- **Garapen Lankidetzarako Nafarroako Kontseilua**, (2021/02/19). Egingo diren jarduketara nagusien berri eman zuten eta PFEZetik datorren %0,7ko banaketarako deialdiaren banaketa-proposamena eta irizpena onartu zituzten. Era berean, Lankidetzarako III. Plan Zuzentzailea Parlamentuan aurkeztu dela jakinarazi zuten.

- **NILSAko Administrazio Kontseilua**, (2021/03/03). Kontuak onetsi zituzten, Plan Zuzentzailearen gauzatze egoeraren berri eman zuten eta kudeaketa-adierazleei eta egiteke dauden auziei buruzko informazioa eman zuten.
- **NELS Sarea Koordinatzeko Batzardea**, (2021/03/04). Web Plataforma berria eta jardunbide egokien biltegia aurkeztu zuten.
- **Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (EIN)**, (2021/03/05). Udalek igorritako ofiziozko baja-espeditze batzuk izapidetu zituzten.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA.- NUKFri atxikitze eskaerak.

Errozko Kontzejuak NUKFri atxikitze egindako eskaeraren berri eman da.

ERABAKI DA:

Entitate horren eskaera aintzat hartzea. Horrenbestez, entitatea NUKFko kide izatera igaroko da bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

4. PUNTUA.- Elkarlanerako protokoloa Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejen Federazioaren artean.

Lehendakariak Merkataritza Ganberarekin protokolo bat izenpetzeko proposamena azaldu du. Protokolo horren helburu nagusia da Ganberak NUKFri informazio zehatza igortzea autonomoen eta enpresen garapenerako martxan dituen jardueri buruz eta, bereziki, funts publikoen, leihatila bakarreko zerbitzuaren, digitalizazio-zerbitzuen eta merkataritzari laguntzeko zerbitzuen inguruan. NUKFk berriz, Federazioaren kide diren toki entitateei informazio hori igortzeko konpromisoa hartu du.

ERABAKI DA:

Protokolo hori onestea eta lehendakaria hori sinatzeko gaitzea.

5. PUNTUA.- Kontratazio Publikorako Aholkularitza Batzardearen txostena Geserlocal SL NUKFren erakunde instrumentala izan daitekeen edo ez azaltzeko.

Federazioak hala eskatuta Kontratazio Batzardeak Geserlocal erakunde instrumentala izan daitekeen edo ez azaltzeko eginiko txostenaren berri eman du lehendakariak. Txosten hori, Geserlocal erakunde instrumental gisa hartu ahal izateko eskatu zen eta ematen dituen zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko;

nagusiki, NUKFri atxikitako toki entitateen diru-bilketa exekutiboaz arduratzeko zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko zerbitzu hori lizitatu beharrik gabe.

Jarraian, idazkari nagusiak azaldu du gai hori udalen batek eskatuta planteatu dela, baita toki entitateei zerbitzu hori esleitzeko erraztasunak eman ahal izateko ere. Adierazi dutenez, udalen bat bada zerbitzu hori Espainiako Udal eta Probintzien Federazioaren erosketen zentralaren bidez bideratu duena, hain zuzen ere, lizitatu beharrik ez izateko. Halaber azaldu dutenez, kontratazioari buruzko araudi berria eta erakunde instrumentalei buruzko zuzentarauak direla eta, ikusi da Geserlocali izaera instrumental hori emateko aukera egon daitekeela. Gogoan izan behar da Geserlocal NUKFk eta Zangoza, Lizarra eta Erriberriko udalek bere garaian sortutako sozietatea dela udalen behar bati erantzuteko, ez baitzegoen horretarako eskaintzarik, baina, gaur egun, enpresa askok eskaintzen du zerbitzu hori.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, osasun krisia dela eta Geserlocalen egungo egoeraren inguruan galdetu du. Jakinarazi dutenez, aurreko urteko bigarren seihilekoan Geserlocalek jarduna eten zuen baina dagoeneko ohiko jardunera itzuli da. Cabasés jaunak adierazi duenez, baliteke ordainketa erraztasunak zor gutxiago sortzea, baina oraingoz, ez da langileen plantillan inolako aldaketarik egin behar izan. Esan duenez, kezkarriagoa da udal kopuruen galera.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, gaiaren inguruan esan du bere garaian Animsarekin gertatu moduko egoera dela eta horrek ondorioak dituela, adibidez, BEZari dagokionean etab.

Geserlocal erakunde instrumentala izatea bideragarria den aztertzen jarraituko dutela azaldu dute ahalik eta segurtasun juridiko handiena edukita.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

6. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.

- Gobernuko lehendakariak egindako eremuko bilerak eremu bakoitzean aurreikusita dauden inbertsioak eta lanak azaltzeko.
- Gobernuarekin eta segurtasun indarrekin izandako koordinazio bilerak COVIDarekin loturiko egoera baloratzeko.
- Toki Administrazioaren zuzendari nagusiarekin izandako bilerak. Bertan, Europako finantzazioa, osasun krisiaren eta txertaketaren egoera eta abar jorratu dira.
- Nafarroako Gobernuarekin eta Europako funtsei buruzko eragile ekonomikoekin Europako finantzazioari buruz egindako bilera. Bertan, Federazioak beharrezkoak diren lege aldaketak onestea eskatu zuen proiektuak eta inbertsioak bizkortu ahal izateko.

- Herritarrekiko Harremanetako Kontseilariarekin eta Europako gaietarako sortu berri den bulegoko arduradunekin otsailaren hamaseian izandako bilera. Bertan, bulego horren zeregina azaldu zuten eta bi erakundeen arteko elkarlana finkatzeko protokolo bat artikulatzea adostu.
- Osasun Departamentuarekin otsailaren hemezortzian eginiko bilera txertaketa estrategiari buruz.
- Sasoikako langileei eta covidaren kontrako neurriei buruz otsailaren hemezortzian eginiko bilkura.
- Nuevo Futuro Nafarroako elkartearekin otsailaren hemeretzian izandako bilera garapen lankidetzaren eta gazteriaren alorrean egiten ari diren lana azaltzeko.
- Gobernuako lehendakariarekin otsailaren hogeita hiru izandako bilkura NUKFren proposameneren berri emateko Europako funtsen inguruan. Bilera horretan, proiektuen izaera sektoriala kontuan harturik, Nafarroako Departamentuekin bilkurak egitea adostu zen toki entitateekin elkarlana zehazten joateko.
- Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin otsailaren hogeita seian izandako bilera. Bertan, Federazioa premiatu zuten toki entitateetako ordezkariarekin elkarlanerako mahai bat sor dezan udarako zer edo zer lantzen hasteko.
- Lurraldearen Antolakuntzarako kontseilariarekin eta haren taldearekin martxoaren batean izandako bilera Europako funtsen inguruan. Bertan, Federazioari diruz lagunduko diren lerroen berri eman zioten: hiri-inguruneen lehengoratzeta, energia eraginkortasuna, landa eremuen eta udalen birgaitzeta, administrazioko erabilerarako eraikin publikoen birgaitze integrala eta birgaitze jasagarria eta hirien lehengoratzeta.
- Eskubide Sozialetako kontseilariarekin martxoaren zortzian izandako bilera Europako funtsak jorratzeko. Federazioak bere proposamena eman eta lehenbailehen Nafarroari dagokion funtsen zatia zehazteko beharra adierazi zuen; bereziki, hamaika milioietatik gutxienez %15 toki entitateentzat izan behar direnean.
- Energia eraginkortasunaren alorreko laguntzei buruz martxoaren hiru izandako web-mintegia.
- Ogasunarekin izenpetutako hitzarmenari jarraipena egiteko batzordeak martxoaren 5ean izandako bilkura. Bilera horretan, hitzarmena baloratzeaz gain, energia garraiatzeko enpresei lurralde ekarpena eta jabari publikoa okupatzeagatik tasa kobratzeko aukera aztertu zen. Halaber, adierazi zen zehaztu beharra dagoela Ekonomia-jardueren gaineko Zergaren salbuespena nola egiten den.

ERABAKI DA

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

11. PUNTUA- Galde-eskeak.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, adierazi du komenigarria litzatekeela Federazioak toki entitateei Europako funtsen inguruko aholkularitza ematea laguntza teknikoko zerbitzua kontratatuz.

Uste du toki entitateak azken katebegia direla eta, dagoeneko, proposamenak eta eskaerak egin dituztela baina haratago joan beharra dagoela. Aipatu aholkularitza zerbitzua entitateak gidatu beharko lituzke proiektuak aurkezteko moduari dagokionean, eginda dauden proiektuak egokitzeko eta abar.

Lehendakariak adierazi du, momentuz, Nafarroako Gobernutik iristen zaion informazioa baino ez duela Federazioak eta zerbitzu hori egokia izan daitekeela.

Oroz jaunak, bestalde, Nafarroako Gobernuko 012 zerbitzuaren funtzionamenduaren inguruan kezka azaldu du eta zerbitzu horren kudeaketarekin ados ez dauden beste udal batzuekin bilduko dela esan du.

Halaber, Gabonetan Batzorde Betearazlearen kideei egiten zaien oparitxoaz adierazi du bere ustez ez litzatekeela egin behar.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, txertaketa estrategiaren inguruan Osasun Departamentuarekin eginiko bilkurari heldu dio. Esan du, bertan Iruñerriko txertaketari buruz esandakoarekin alderatuta, irizpide aldaketa egon zela eta ez zietela horren berririk eman. Azkenean, herritarrak Iruñera mugiarazi zituzten. Eskatu du kexa Osasuneko Zuzendaritza Nagusiari helarazteko eta bigarren fasean nola egingen den galdetu du.

Hala eta guztiz ere, eskerrak eman dizkio Iruñeko Udalari eskura jarritako kiroldegiengatik.

Lehendakariak erantzun dio kexa hori dagoeneko helarazita dagoela. Bigarren faseari dagokionean azaldu du, antolatzen hasi direla jada eta, dagoeneko, eremu batzuetan abiatu egin dutela laurogei urteko populazio kopuru handiena dutenetik hasita. Bere ustez, harremanetan jarriko dira eremu desberdinetako arduradun politikoekin eta osasun-arduradunekin.

Unzue jaunak, Agoizko alkateak, ere bere eremuan txertaketa estrategiarekin izandako deskoordinazioa agerian utzi du. Bestalde, jakinarazi du interesa adierazi duten toki entitateekin immatrikulatutako ondasunei buruzko taldearen lehenengo bilera egingen dela martxoaren hogeita lauan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko seiak eta laurden direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.